



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES

AZAROAREN 25EKO ADIERAZPENA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Azaroaren 25a Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, Udalok gaitzespen irmoa adierazten dugu indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurrean, eta beste erakunde batzuekin, mugimendu feministarekin eta gizarte osoarekin modu koordinatuan lan egiten jarraitzeko konpromisoa berresten dugu.

Aurten, arreta jarri nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria matxistaren diskurtso ukatzaileetan. Mezu horiek ultraeskuinak bultzatuta sortzen dira, Europan eta munduko beste leku batzuetan aurrera egiteko. Emakumeen eskubideetan izandako aurrerapenen aurreko erreakzio horrek emakumeen eta haien inguruaren aurkako indarkeria ezerezten du, eta oraindik haratago doa, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako borrokaren arloko lege-aldaketek gizonezkoak biktimizatzen dituztelako ustea bultzatzen du.

Nahiz eta gero eta sentsibilizazio eta kontzientzia kolektibo handiagoa egon emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartearen alde -bai esparru legalean eta politikoan, bai sozialean-, gaur egun joera neomatxista gero eta handiagoa ari da nagusitzen, batez ere mutil eta gizon gazte eta adin ertainekoen artean, eta bereziki eremu digitalean. Manosfera deitu zaion eremuan, mezu misoginoak eta berdintasunaren aurkakoak ugariak dira. Hala, gazteak honelako mezuak jasotzen ari dira: "indarkeriak ez duela generorik", "asmakizun ideologikoa" dela, berdintasun-politikak "urrunegi" iritsi direla...

Diskurtso horien aurrean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren datuek gogorarazten digute gure gizarteak egiturazko arazo bat duela, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean oinarritzen dena.

Negazionismoa arazo globala da, eta Nazio Batuek ere alarma piztu dute berdintasunaren aurkako mehatxu gero eta ugariagoez eta misoginiaren normalizazioaz ohartarazteko, batik bat, hedabide digitaletan.

Hori guztia kontuan hartuta, Pasaiko Udalean emakumeen aurkako indarkeria ezereztu nahi duen edozein diskurtsoren aurka agertzen gara, eta honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Gure herrian euste-horma kolektiboa aktibatzea, emakumeen aurkako indarkeria ukatzen edo/eta ezerezten duen edozein erreakzio matxistaren aurrean. Horretarako, tokiko eragile guztiekin lan egingo dugu, mezu ukatzaile horiei aurre egiteko eta mezu horiek



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES

indargabetzeko iritzi-giroa sortzeko; partaidetza-mahaiak, zurrumurru misoginoei eta mezu ukatzaileei aurre egiteko sare lokalak, jarrera bateratuak, eta erantzun publiko eta kolektiboko protokoloak artikulatuz.

- • Gazteei zuzendutako sentsibilizazio-neurriak hartzea, batez ere mutilei zuzendutakoak, egunero jasotzen dituzten mezu misoginoak, emakumeen aurkako mezu bortitzak eta berdintasunaren aurkakoak desaktibatzeke, batik bat, bitarteko digitalen bidez.
- Gune formal eta informaletan eskola-komunitateari zuzendutako hezkuntza- eta prestakuntza-prozesuak indartzea, indarkeria matxistaren aurrean sortzen diren mezu eta jarrera ukatzaile horiei aurre egiteko eta desaktibatzeke.
- Hezkuntza Sailarekin hitz egiteko bideak erabiltzea, eskola-curriculumean jarrera ukatzaileetan eta jarrera matxisten normalizazioan esku-hartzea indartzeko.
- *Berdinsaretik* eta beste sare batzuetatik udalerrien sareko ekintza indartzea, ukapenari aktiboki aurre egiteko eta udalerriek indarkeria matxistaren aurka kolektiboki borrokatzeke egiten duten apustua berresteko.

Era berean, Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat herritan antolatuko diren ekitaldietan parte hartzera animatu nahi ditugu herritarrak, modu aktiboan gaitzesteko emakumeen aurkako indarkeria matxista oro, baita negazionismoa eta ezereztea ere.